

# Euskal Elkargoko gobernantzari buruzko herritar auditoretza



Jakes Bortairu  
ABERTZALEEN  
BATASUNA-KO KIDEA

Udazken honetan Batera plataforma 2017ko urtarrilean sortu zen Iparraldeko lehen erakunde publikoaren funtzionamenduaz auditoretza burutzen ari da. Urrian zehar, tokian tokiko 150 lagun bildu dira instituzio berriko bi urteko ibilbidean agertu diren elementu negatiboak zein positiboak zerrendatzeko. Bigarren fase batean entzuketak antolatuak izan dira, alde batetik jendarteko pertsona gaitu batzuen iritzia galdegiteko eta bestalde Elkargoaren ardura postuetan diren hautetsiak galdekatzeko, presidentea barne. Azkenik, abenduaren hasieran bildutako elementu guztiak kontuan harturik, hobetzeko proposamenak landuko dira, gobernantza garde-nago eta demokratikoagora buruz joateko.

Batera plataformak urte luzez borrokatu zuen Iparraldeak lurralde kolektibitate propioa izan zezan. 2015ean, Frantziako Estatua-ren jarrera eta indar harremana kontuan hartuz, Hirigune elkargoa lehen urrats gisa onartu zuen. Halere, plataformak lehengo helburua ez du abandonatu eta argi du lehen erakunde horrek ahal bezain ongi funtzionatzea ezinbestekoa dela, ondoko urratsak errazteko gisan. Hain zuzen ere, azken hilabeteetan hainbat polemika piztu eta kekek agertu dira. Kostaldearen eta barnealdearen arteko haustura aipatu da. Jende batzuk zentralizazioaz pleinitzen dira, botere urruntzeaz, beste batzuek susmoa

dute, aldiz, tokian tokiko dinamika politikoak landu beharrean, ez ote diren politika teknokratikoak garatzen ari. Arkitektura instituzionalean aurreikusiak ziren lurraldeetako poloak ez dira oraino egituratu. Hautetsien artean adosturiko pakto fiskala hautsi da garraio zerga aurtendanik emendatzeko erabakiarekin. Hitzarmen eskasa eta gauzak tarrapatata egin direla aipatzen da.

Instituzioa sortzeko garaian horren kontra mobilizatu ziren sektore batzuk ozen eta azkar mintzo dira orain, akats guztiak azpimarratuz. Eta segur poztuko lirakeela sekulan Elkargoak porrot egingen balu. Espazio publikoan haiei ezin utzi hitzaren monopolioa. Elkargoa defendatu eta horren alde jendea informatu eta mobilizatu zuen Batera plataformari ere doakio hitza hartzea, objektibotasunez eta beharrez ikusmolde kritikoa agertuz, espiritu eraikitzaile batekin. Horretarako, Elkargoaren ibilmoldeari buruzko iritzi trukaketa, diagnostiko eta proposamenak eraikitzeko ariketa proposatu dio Iparraldeko jendarteari. Sortu berri den erakundearen ebaluazioa egitea sano eta beharrezkoa da beraz. Iparraldeko lehen instituzioa jendarte erne eta mobilizatu bati esker lortu zen gisan, geroari begira aitzinamendu berri batzuen berme nagusia izan den da jendartearen akuilua. ■

## Bestondo



Itxaro Borda  
IDAZLEA

Jair Bolsonaro bilakatu da beraz, Brasil eskualde erraldoiko presidente. Hauteskunde kanpaina denboran, mozkortzeraino arrazistak, homofoboak, misoginoak eta antisozialak ziren diskurtsoak egin zituen, Brasilgo jendarte maila ezberdinetan beldurra txertatuz, bereziki ahulenetan, hala nola txiroen favelletan eta Amazonako indioen komunitateetan. Denak behar omen ditu, buldozerrez, lurraren azaletik desagerrarazi.

Trump, Macron, Salvini eta jada Bolsonaro bezalako gizonek boterea hartzen dute normalean asmaezinak litezkeen ideiak plazaratuz, ideiak horiek potoloago eta irensgarriagoak balira be-

zala. *Hold up* edo lapurreta modukoak obratu dituzte, demokraziaren balioak zangopilatuz eta antisistema gisa aurkeztuz, bozkatzaile sinetsberak bete-betean harrapatuz.

Baina huts handia liteke, uste bagenu hiritar apalenek baizik ez dituztela boterera eraman. Parpaila txiolari horien giblean, afera egileen eta multinazionalen buruak daude, Neymarren trakako futbolariak eta Brasilgo aberatsenak, demokraziaz bridatuak sentitzen direnak! Hori bai, ezin uka, jende minberatuaren bozen konplizitatearekin irabazten dutela.

Hertsi dira xederak. ■